



**Literaktum 2016**  
**Hitzen Hiria –**  
La ciudad de las palabras  
**Maiatza 3 - 14 Mayo**  
**Donostia/San Sebastián**

Datorren maiatzean, Literaktum topaleku izango da berriz ere Donostian literatura bere adierazpide askotariko eta aberatsetan maite duten pertsonentzat. Oraingo honetan, **jaialdia maiatzaren 3tik 14ra bitarte izango da**: bederatzi egunotan, hitza izango da ardatza, eta bide emango zaie bai literatura hutsezko sorkariei, bai musikatik, argazkitik, ilustraziotik sortzen diren beste sorkari batzuei. Protagonista aktiboa jendea dela ahazten ez dugunez, jendeak jardueretan parte har dezan bultzatuko dugu guk, eta literatur egintzak eskueran jarriko dizkiogu.

Literaktum jaialdi mestizoa da, literaturaz hainbat ikuspegitatik, zenbait hizkuntzaren bitartez eta formatu desberdinetan gozatzeko proposamen bat. Sarean egiten den jaialdia da, energia-batuketara bat, hirian zehar hedatzen dena. Okendo (Gros), Ernest Lluch (Amara), Tomasene (Altza), Aiete, Lugaritz (Antigua), Liburutegi Nagusia eta Alderdi Eder, San Telmo, Koldo Mitxelena eta hiriko zenbait liburu-denda izango dira jaialdiko topaguneak aurrean, Kultura Hiriburutzaren urtean.

Hori guztia, helburu batekin: erakustea literaturaren askotarikoa, literaturak loturak egiteko duen ahala, munduaz eta geure buruaz hitz egiteko duen gaitasuna.

Lotura horien artean, eta iaz lehen aldiz gertatu zen bezala, nabarmendu nahi dugu *Gipuzkoako Liburu-denden Elkartearekin* lankidetzan jardungo dugula jaialdia osatuko duten zenbait proposamenetan. Alde horretatik, zenbait topaketa izango ditugu liburu-denda batzuetan, *Liburu Lurralde*a programaren barruan, zeina iaz aurkeztu baitzen lehen aldiz, eta Zilarrezko Euskadi Sariak bi idazle protagonistak izango dira bertan.

Gauza bat aurreratu nahi dugu, sarituen presentziaz gainera: jaialdian **Aritz Gorrotxategi** idazle donostiarrak ***Literaktum Kaiera izeneko blogean*** hartuko duela parte, eta horixe izango dela Literaktumen edizio honetako bitakora-kaiera: autore batengandik besteagana, jarduera, leku edo gaietan barrena egindako bidaia bat, Aritz Gorrotxategiren literatur ikuspegitik.

Gaurko honetara itzulita, orain **Zilarrezko Euskadi Sariak** aurkeztuko ditugu Gipuzkoako Liburu-denden Elkartearekin batera. Sariok urtero ematen ditu Gipuzkoako Liburu-denden Elkarteak (zeina Mekataritza Federazioko kide baita), Liburuaren Egunaren ospakizunak direla eta.

Sari hori bi lani ematen zaie, Gipuzkoako liburu-dendek iazko argitalpen guztien artean aukeratutako bi lani. Oraingo honetan, bi bitxi berreskuratuko dituzte, liburu-dendetan jaso ohi diren berrikuntzen itsaso zabalean murgiltzen diren ugarien artetik. Hain zuzen ere, kaleratu zirenean merezi zuten aitortza jaso ez zuten bi lan dira; hartara, bigarren aukera eman nahi zaie.

Honako hauek dira 2016ko edizio honetan saritutakoak:

- Euskaraz: “*X hil da2*, Alaine Agirrerena, “*idazkeraren edertasunagatik, prosaren erritmoagatik eta narrazioari darion errealismoagatik. Obsesio bati buruzko liburu bat da, modu obsesiboan kontatua. Idazkeraren gaztetasuna harrigarri gertatu da, halaber, literatur tekniken erabileragatik eta liburuak lortzen duen intentsitateagatik*”.
- Gaztelaniaz: “*Instrumental*”, James Rhodes-ena, “*prosa zuzen eta gordin baina aldi berean hurbil eta jostagarriagatik. Argitalpenak erakusten duen ausardiagatik. Darion umoreagatik eta hobetu-nahiaren eta erresilientziaren eredu delako. Eta kultura –kasu*

*honetan, musika– bizimodu batekin lotzeagatik, bizitzan zehar gertatzen diren egoera dramatiko eta zailtarako salbaidide gisa aurkezteagatik. Liburuak ez baitu inor hotz uzten”.*

Bi sariok maiatzaren 5ean emango dira, goizean, San Jeronimo kaleko aretoan. Eta biek izango dute agerraldia jaialdian:

- Ostegunean, maiatzaren 5ean, arratsaldeko 7,30etatik aurrera, San Telmo Museoa, James Rhodese literatura- eta musikarekin izan duen esperientzia azalduko du; horrekin batera, zenbait pieza joko ditu pianoan.
- Alaine Agirre, berriz, Jasone Osoro idazlearekin batera agertuko da, maiatzaren 6an, ostiralarekin, arratsaldeko 7,30etan, Koldo Mitxelena Kulturunean.

Bi jarduerak, Literaktum jaialdian ohi bezala, irekiak izango dira, jarlekuak bete arte. Bestalde, programa hurrengo prentsa-oharretan eta jaialdiko eta Donostia Kulturako webetan webetan aletuz joango gara.